



Arartekoaren 2015IR-1206-14 Ebazpena, 2015eko urtarrilaren 13koa. Horren bidez, amaitutzat jotzen da Sestaoko Udalak udal erroldaren kudeaketaren, biziberritze-prozesuaren eta herritarren segurtasunarekin lotutako zenbait gairen esparruan egindako jarduketei buruzko ofiziozko esku-hartze bat.

Aurrekariak

1. Arartekoak ofiziozko esku-hartze bat abiatu zuen 2014ko maiatzaren 28an, Sestaoko Udalak azken urteetan egindako udal jarduketa batzuk zirela eta. Jarduketa horiek erakunde honek esku hartzea eragin dute zenbait unetan, ofizioz nahiz herritarrek aurkeztutako kekek izapidetuz.

Udal jarduketa horiek zenbait gairekin zuten zerikusia, besteak beste udal erroldaren kudeaketa eta zenbait pertsonari izena ematea ukatzea, herritarren segurtasun-arazoak eta azken urteetan gizarte-, hirigintza- eta ekonomia-hondatze nabarmen pairatu duten auzoen beharrezko hirigintza-biziberritzea.

Ofiziozko esku-hartzea testuinguruan kokatzeko, udalari bidalitako informazio-eskaeran hau adierazi genuen: *"...ezinbestekoa da Sestaoko bizilagunetako batzuek bizi duten gizarte bazterketa eta marjinazio egoera kontuan izatea. Egoera hori bizi dugun krisi ekonomikoa baino lehenagotik dator. Batez ere ijitoengan eta atzerritarrengan du eragina. Egoera horrek zenbait ondorio ekarri ditu: gizarte aurreiritziak, gizarte kohesio ahula eta, are larriagoa dena, legezkotasuna eta giza eskubideak erabat betetzen ez dituen erantzun instituzionalen bat. Ezin dugu ahaztu administrazio publikoek, jarduten dutenean, antolamendu juridikoa eta giza eskubideak goitik behera bete eta errespetatu behar dituztela. Batez ere berdintasunaren printzipioa behatu behar dute. Ezin dute pertsonak edo kolektiboak baztertzeko dituen jarduketarik egin".*

Hala, garatu genituen gogoetak oinarri hartuta, hiru alderdiri buruzko informazioa eskatu genuen, eta gogoeta horiei buruz berriz hitz egingo dugu dagokion atalean.
Hots:

a) Biztanleen erroldarekin lotuta:

- Zer arrazoi dela eta ez diren artatu Arartekoak erroldatzeari buruz egin dituen aipatu gomendioak.
- Azken hiru urteetan ezezkoa eman zaien erroldatze-eskaeren zerrenda eta ezezko horien justifikazioa, bai eta ezezkoa eman zaien eta adingabeei eragiten dieten inskripzio-eskaerak ere.



b) Sestaoko udalerrriaren biziberritze-prozesuarekin lotuta:

- Sestaoko udalerrriaren biziberritze-prozesuari buruzko Arartekoaren 2006ko azaroaren 6ko ebazpenean jasotako gomendioen betetzearekin lotuta zer jarduketa egin diren jakin nahi zela eskatu zen.

c) Herritarren segurtasunarekin lotutako gaiei buruz:

- Udalerrrian segurtasunik ez zegoela salatzen zuen egile ezezaguneko kexa batekin lotuta Udaltzaingoak egindako jarduketak (62/2014/QC ofiziozko espedientea).
 - Udalak udalerrian delinkuentzia prebenitzeko planik duen eta ea Udaltzaingoak esparru horretan Ertzaintzarekin koordinatuta lan egiten jarraitzen duen.
 - Ea Udalak erantzunik eman al dien Txabarriko eremuko auzokoek egiten ari ziren segurtasun- eta bizikidetz-eskaerei.
 - Ea Udalak urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorraren, "Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoa"ren, VI. atalean proposatutako mekanismoez hornitu duen udalerrria, atzeritar jatorriko pertsonen aurkako jarduketa diskriminatzaileak saihesteko.
2. 2014ko ekainaren 13an, Sestaoko Udalak Arartekoaren prozedurari buruzko gomendioak ez artatzeko arrazoiak lehen erantzun bat bidali zigun. Jasotako idazkian hauxe adierazten zuen:

"Examinados los expedientes a que hace referencia en el escrito señalado anteriormente, 1903/2013/29, 182/2013/29 y 2202/2013/29, adjunto le remito escrito con la respuesta a cada uno de ellos, pudiendo comprobar por los mismos que en ningún caso ha existido voluntad de no seguir las directrices marcadas, sino más bien, se ha estado trabajando sobre los mismos y en el caso del concerniente a la recomendación de 21 de noviembre de 2013, referencia 2202/2013/29, continuamos el trámite del mismo, como puede comprobarse por el escrito que se remite.

De igual modo le adjunto fotocopia de todos los expedientes de empadronamiento que más que denegados en los últimos tres años, han sido archivados por los motivos que se indica en los mismos. También le adjunto el impreso que se entrega a los ciudadanos que solicitan información sobre la documentación a presentar para su inscripción en el padrón municipal de habitantes".

3. Hala ere, lehen aurrekarian aipatutako b) eta c) atalei buruzko gaien inguruko erantzunik jaso ez genuenez, berriz egin genuen informazio-eskaera bat, 2014ko uztailaren 3ko idazki baten bidez.





Udalak, azkenean, Sestaoko biziberritze-prozesuari buruzko gaiei (b) atala) erantzun zigun.

Arartekoaren 2006ko azaroaren 6ko ebazpenak, Sestaoko udalerriko biziberritze-prozesuari buruzkoak, jasotzen zituen gomendioetako bakoitzari erantzun die.

1. Gomendioekin lotuta. Adostasun politikoa berritzeko beharra.

2005. urtean Sestao Berri sozietatea sortu zela aipatzen du Udalak, eta zer adostasun politiko egon den, tresna horren bidez hiri-biziberritzeko, -berritzeko eta -birgaitzeko etxebizitza-politikak kudeatzen joateko. Halaber, etxebizitza eskuratzeko erraztasunak ematea ere aipatzen du helburutzat, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenaren eta udal etxebizitza-parkea kudeatuz gizarte-alokairuaren kudeaketaren bidez, eta ASAP programaren bitartez alokairua lortzeko bitartekaritzaren bidez, Sestaoko beheko eremuan lan eginez batez ere, hau da, 5 jarduketeta-eremu hauetan: Rivas, Simondrogas, Urbinaga, Txabarri eta Los Baños.

2005etik 2014ra Eusko Jaurlaritzako eta udal gobernuko zenbait talde igaro direla adierazi du, eta Eusko Legebiltzarraren agindutik eratorritako adostasun politikoa errespetatu dutela denek, Sestaoko udalerrian gizarte- eta hirigintza-esparruan esku sartzeko premia larria zela eta.

2010. urtean, Txabarri-El Sol eremuan jarduteko konpromisoa berritu zen, Eusko Legebiltzarrean onartu zen Legez Besteko Proposamen baten bidez. Proposamen horrek Eusko Jaurlaritzari 2011-2014ko hainbat urtetarako aurrekontua lotzeko eskatu zion, Txabarri-El Sol birgaitze integratuko areako 25 eraikinetan jasotako jarduketetarako. Bukatzeko, gaur egun, Sestao Berriri hainbat urtetarako diru-laguntza izendunak 25 eraikinetako 7rentzat gauzatu direla adierazi zuen.

2. gomendioarekin lotuta. Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Sestaoko Udalaren arteko lankidetzak

Eusko Jaurlaritzak eta Sestaoko Udalak etxebizitzaren esparruan nahiz gizarte-politiken esparruan izandako lankidetzak-esparrua aipatu dute, eta Bizkaiko Foru Aldundiak SESTAO BAI sozietatearen bidez garatutako sustapen ekonomikoko ekintzak ere, Sestao Bai industrialdea biziberrituz eta abian jarriz Aurrera fabrika zaharrean.

Kaltetutako familiei berriz ostaturak emateko etxebizitzak eskura jartzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak nahiz Udalak eskuragarri zeuden etxebizitzaren eskaintzarekin bete dutela adierazi dute. Vega Galindon planifikatutako behin betiko ostaturako etxebizitzak lursailak urbanizatzeko fasean daude unen honetan. Bukatzeko, gizarte-akonpainamenduko prozesuak ondo garatu direla aipatzen dute, kaltetutako familiak herrigune sozialki egonkorretan gizarteratzeko behar adina gizarte-integrazioz.



3. gomendioarekin lotuta. Gida Planaren berrikusketa

“Ekintzak integratuz” Gida Plana Zuzendaritza Batzordeen bidez kudeatu zela jakinarazi dute. Duela urte batzuetatik hona bizi den ekonomia- eta aurrekontu-krisiaren ondorioz, Sestaoko “Ekintzak integratuz” Gida Planaren jarraipena ezin dela egin izan planteatu dute, eta plan horren berrikusketa egiten hasteko daudela.

Jarduketa hauek aipatu dituzte:

- BI-3739 Sestao hiri-errepidearen (Txabarri kalea) hobekuntza eta egokitzapena. Hiri-errepide horren obren lizitazioko oinarritzko aurrekontua 13.732.966,02 eurokoa (BEZ barne) izan zen eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2009ko eta 2010eko ekitaldian gauzatu zuen, Udalarekin bide horren titulartasuna udal erakundeari lagatzeko hitzarmena sinatu ondoren.

- Iberiako merkatu zaharra berreraikitze obrak egitea, Oinarri Teknologikoko Haztegi bat eta Auzo Etxe bat ezartzeko. Auzo Etxearen obra Udalak gauzatu zuen 2010eko ekitaldian, eta 2.118.547,45 euroko (BEZ barne) zenbatekoagatik likidatu zen. Obra hori finantzatzeko Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Industria Ministerioaren diru-laguntzak lortu ziren.

- Portopineko Parkearen urbanizazioa, birmoldatzea eta egokitzapena. Udalak gauzatu zuen 2010eko ekitaldian 802.185,72 euroko azken zenbatekoagatik. Zenbateko hori IZARTU Programako funtsen bidez finantzatu zen partzialki.

4. gomendioarekin lotuta. Eraitsita zeuden edo eraisteko zeuden eraikinetan bizi ziren pertsona guztiei ostatua emateko eskubidea bermatzea

2005-2014 aldian etxebizitza hondatzeagatik edo hirigintzako jarduketa-espedienteengatik kaltetutako familiei berriz ostatua emateko edo familia horiek berriz kokatzeko 150 espediente baino gehiago kudeatu direla adierazi dute. Kaltetutako familia guztiei bizikidetzaren unitate gisa dituzten beharren eta Sozietateko Administrazio Kontseiluak 2006ko irailean onartutako gizarte-irizpideen arabera bizitegi-irtenbide bat bermatu zaiela ere adierazi dute.

5. gomendioarekin lotuta. Udal etxebizitzaren erabilera egokia eta herritarren segurtasuna bermatzea

2008ko maiatzaren 9an Sestaoko Udalaren eta Sestao Berriren artean hitzarmen bat sinatu zutela aipatu dute, Sestao Berrik gehienbat Los Baños jarduketa-eremuan kokatutako alokairuko 120 etxebizitzako udal parkea kudeatzeko.

Los Baños jarduketa-eremua erabat normalizatutako bizikidetzaren eremu bat dela jakinarazi dute, eta ondo kudeatutako etxebizitza-parke bat duela eta espazio



publikoak eta pribatuak ondo kontserbatuta daudela. Horren adierazle gisa, hauek aurkeztu dituzte:

- %48ko berankortasunetik %1eko berankortasunera igarotzea 2008tik 2014ra.
- Udalaren erantzukizunpean konpondutako gorabehera teknikoen kudeaketa. Tokiko Enplegu Planen bidez konpondu dira gorabehera horiek, eta lan horiek bi helburu betetzeko baliagarriak izan dira: batetik, pertsona langabeak laneratzeko (horietako asko udal etxebizitzan errentadunak), eta bestetik, etxebizitzan udal parkea abian jartzeko.
- Sestao Berrik errentadunen erkidegoen kudeaketan esku-hartze zuzena izatea Udalaren baimenaz. Horri esker, erkidego bakoitzaren ekonomia oxigenatu eta konpondu ahal izan da, elementu komunen erabilera egokirako eta mantentze-lanetarako konponketa txikiak baina premiazkoak egiten hasteko.
- Familiaren eta komunitatearen mailan esku-hartze sozial zuzena egitea. Aspalditik kistatuta zeuden kasuak berriz bideratzeko baliagarria izan da, Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta Sestao Berriren arteko lankidetzaren arrakastatsuari esker.

6. gomendioarekin lotuta. Gizarte-sentsibilizazioa sustatzea

2010-2013 aldiaren egindako Kultura arteko eta Gizarte Kohesioko HABITAT proiektua ere aipatzen dute. Hasiera batean, HABITAT proiektuak anbizio handiagoa zuen, baina gaur egungo ekonomia-krisiaren ondorioz, Sestao Berrik proiektu horri esleitutako baliabideak murriztu behar izan zituen, eta hori zela eta, proiektu horretan jasotako jarduerari eragin zien murriztapen horrek.

Zer eremutan garatu zen eta biztanleriaren ezaugarriak eta zer emaitza zeuden aurreikusi zituzten aipatu dute.

Hasiera batean aurreikusitakoetatik bi jarduera egin dira: Elkarbizitzarako gida eta Taupadak bideoa. Horrez gainera, erkidegoen bi topaketa ere egin dira. Hirugarren topaketan dokumentala eta gida aurkeztu ziren.

Egindako jardueretan zenbait kolektibok eta eremuko elkarte gehienek parte hartu dutela azpimarratzen dute, batez ere Kulturarteko eta Taupadak jardueretan.

Lortu nahi ziren helburuei dagokienez eragina handia eta ona izan dela ondorioztatu dute.

7. gomendioarekin lotuta. Lankidetzaren, informazioa eta herritarren parte-hartzea hobetzea

Udalak 2014ko urtarrilaren 28an egindako osoko bilkuran Sestaoko Herritarren Parte-hartzerako Araudia hasiera batean onetsi zutela jakinarazi dute, eta zegokion izapidetzea egin ondoren, behin betiko onartu zela.





Araudi hori onartuz, Sestaoko herritarrek gai publikoetan eta udalerriko bultzak kolektiboan gehiago parte hartzeko eta udalerriko elkarteei laguntzeko borondatea aipatzen da.

8. gomendioarekin lotuta. Gizarte-eragileekin lankidetzak hobetzea

Gizarte-eragileek Udalarekin harreman zuzena dutela aipatu dute, Sestaoko udalerriko auzo bakoitzeko herritarren kezkek helarazteko. Horrez gainera, kontaktu estuagoak ezartzen ari direla ere aipatu da, auzo bakoitza gizartearen eta hirigintzaren ikuspuntutik aztertzeko eta Europar Batasuneko egiturazko funtsen barruan "Lurralde Inbertsio Integratuko" proposamen bat prestatzeko, Sestaoko auzo bakoitzerako estrategia komun baten baitan gizarte-, enplegu- eta hirigintza-politikak elkartzeko bidea emango duen hiri-biziberritze politika integratu bat garatze aldera.

Europa mailan proiektu piloturen batean lan egiten ari direla ere aipatu dute, hala nola EU GUGLE, EU PAPIRUS eta EU TRIME.

9. gomendioarekin lotuta. Sestao Berri S.A. sozietateak egiten duen lanari laguntzea

Sestao Berriren lanak emaitza onak izan dituela adierazi dute. Zenbait konpromiso betetzeko daudela jakinarazi dute, hala nola Ballonti Ardatzaren eta Vega Galindoren esparruen kudeaketa, behin-behinean VICESAk Puntan (Vega Galindo) oraindik eraikitzeko dituen etxebizitzetan behin betiko bizitegi-irtenbidearen zain dauden 30 familien itzulera kudeatzeko.

Txabarri-El Sol barne-eraberritzeko plan bereziko egikaritze-unitateen kudeaketari dagokionez, jarduketa horietako bat egiten ari dela jakinarazi dute, hain zuzen, UE1 Txabarri-El Sol egikaritze-unitatekoa.

4. Herritarren segurtasunari dagokionez, Udalak bigarren abagune honetan eman digun informazioak, ordea, ez ditu erantzuten galdetutakoak, aurrerago adieraziko duguna izan ezik. Izan ere, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorretik zer betetzea aurreikusita dagoen jakinarazten baitigu soilik.

Nabarmendu behar dugu ez genuela eskatu gomendio honen inguruko informazio orokorrik, baizik eta VI. atalari buruzko informazioa eskatu genuela eta Udalak atzeritar jatorriko pertsonen aurkako jarduketa diskriminatzaileak saihesteko ezarritako berariazko mekanismoei buruzkoa.

Mekanismo horiekin lotuta, Udalak informazio hau eman digu soilik: Udaltzaingoak buruzagitzaren asteroko bileretan "Atzeritarrekin izandako jarduketak berrikusteko txosten bat egitea eta balorazio-txostena emateari" buruzko puntua gehituko duela.



Gure eskaeran adierazitako gainerako alderdiei buruzko informaziorik ez digu eman Udalak.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, **Sestaoko udalerrian pertsona batzuek zituzten erroldatze-arazoen inguruko Arartekoaren gomendioen betetzeari buruzko** Udalaren erantzuna aipatuko dugu.

Gure informazio-eskaeran Udala erroldatzearen esparruan behartzen duten legezko zereginak aipatu genituen. Hala, 2013ko irailaren 6ko¹, 2013ko azaroaren 21eko² eta 2014ko martxoaren 31ko³ gomendioak aipatu genituen (lehenengo biak onartu gabe daude, eta hirugarrena une onetan izapidetzen ari da). Gomendio horiek Udalari zuzenduta zeuden, eta esparru horretako legezketasunaren betetzeari buruzko zenbait arazo planteatzen zituzten.

Aurrekarietan aipatu den bezala, alkateak erantzunean adierazi zuen planteatutako egoerak lantzen aritu direla eta oraindik izapidetze hori gauzaten ari direla, eta ez dela egon inoiz markatutako arauak ez betetzeko borondaterik.

Nahiz eta erakunde honek izapidetutako espedienteetako bakoitzean idatziz jasota geratu diren gertaerek alkateak adierazitakoa gezurtatu, batez ere, eskatu zuten familia batzuei erroldan alta emateko urte eta erdiko atzerapena izatea ez justifikatzeari dagokionez, gaur egun esan dezakegu gomendioek aipatutako banakako kexa guztiak eta geroago izapidetutako beste kexaren bat egoki ebatziak izan direla.

Bestalde, jasotako espedienteen kopia batzuk aztertzeo aukera izan duzu, eta ezetzatuak izan ordez, alkateak "artxibatuak" izan direla dio.

Espediente ugari jaso direnez, 2011. urtetik 2014ko hasierara arteko 175 inguru, ezinezkoa da epai juridiko zehatz eta banakatu bat egitea. Kasu askotan, horretarako informazio osagarria eskatzea edo espedienteetako bakoitzaren izapidetzearen alderdi jakinak alderatzea beharrezkoak ziren. Hala ere, aztertutako dokumentazioa ikusita, "artxibatutako" eskaeren izapidetzean izandako hainbat arazo aipa ditzakegu.

Azterketa konstruktiboa egite aldera eta erreferentziatzat balio izan dezan, prozedurak hobetuz legezketasuna betetzeko nahiz erroldatzea eskatzen duten pertsonen beren eskubideen egikaritzea bermatzeko, azterketa alderdi hauetan

¹ 2013ko irailaren 6ko ebazpena. Horren bidez Sestaoko Udalari gomendatzen zaio erroldari lotutako hainbat praktika legezketasunera egoki ditzan.

² Arartekoaren 2013ko azaroaren 21eko ebazpena. Horren bidez, Sestaoko Udalari gomendatzen zaio kexagilea eta haren familia bizi diren helbidean errolda ditzan.

³ Arartekoaren 2014ko martxoaren 31ko 2014R-1903-13ebazpena. Horren bidez Sestaoko Udalari gomendatzen zaio kexagilea erroldatu dezala benetan bizi den helbidean.



ardaztuko dugu: "artxibatzearen" kausak eta eskaera ebazteko jarraitutako prozedura.

1.1. "Artxibatzearen" kausak

1.1.1. Alta eskatzen zaion etxebizitzan ez bizitzea

Oro har, aztertutako espediente ia guztietan, udaltzain-buruaren edo beste agente informatzaile baten txostena ematen da, non hau adierazten den: *"De los informes obtenidos por el que suscribe, NO RESIDEN en dicho domicilio"* (pertsonek izena eta helbidea jartzen dira).

Beste espedienteren batean edo udaltzaingoaren artxiboetan egindako ikerketek buruzko beste informaziorik egon ezean, ez da ezer gehiago aipatzen gai horri buruz. Hori dela eta, kaltetutakoek erroldatzea eskatu duten udalerrian bizi ez direla dioten lau lerro horiek baino ez dituzte.

Beste espedienteren batean, txostenak haxe aipatzen du: *"tras girarle varias visitas a distintas horas y no encontrarse nadie en el domicilio indicado, se consulta a los vecinos quienes aseguran no conocerle en el mencionado piso"*. Hemen egindako jarduketak frogagarria zerbait zabalagoa izan dela iritz daitekeen arren, espedienteetan ez da xehetasun gehiago jasotzen, eskatzailearentzat alegazioak eta/edo frogak emateko baliagarri gerta daitekeena, udaltzaingoak adierazitakoa ez bezala.

Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2. sekzioaren 2013ko apirilaren 15eko epaian, erroldan ofiziozko baja bat ematea auzipetzen zen kasuan, laugarren zuzenbide-oinarrian haxe adierazten zen:

"La sentencia apelada tiene en cuenta la totalidad de la prueba practicada y razona que, frente al informe del concejal del Ayuntamiento donde se indica que giradas reiteradas visitas en diferentes ocasiones, en horas y días distintos, se constata que dichos inmuebles no constituyen su residencia habitual, y que, frente a dicha prueba, única en que la Administración fundamenta la baja de los demandantes en el Padrón Municipal de Habitantes de los recurrentes, el Juzgador de instancia tiene en cuenta la extensa documentación obrante en las actuaciones y que se especifica para cada uno de ellos, que pone de manifiesto la vinculación de los actores con el municipio, ..."

..., señala, a continuación, que en el presente caso se trata en una baja en el Padrón, "que debe estar suficientemente acreditada y motivada para aceptar su procedencia".

Epaiak haxe ere adierazi zuen:

"...La valoración de la prueba en su conjunto nos permite concluir, teniendo en cuenta que la única prueba en que se basa la baja de oficio es un informe de un concejal municipal y que, aparte que dicha información debiera haberse hecho por



quien ostente la competencia a tal efecto (como lo sería la Policía Municipal, como del propio Decreto de inicio del procedimiento se desprende), ni siquiera existen expedientes individualizados donde consten los días y horas en que se giraron las visitas, máxime cuando de una baja de oficio en el Padrón de Habitantes se trata, con las importantes consecuencias que de cara al ejercicio derecho fundamental de participación política comporta la residencia a uno u otro municipio, pues de ello va a depender, entre otros, el ejercicio efectivo del derecho al voto. La afeción que el alta en el Padrón tiene para el ejercicio efectivo de derecho fundamental es suficiente para sostener que sea exigible una mayor actividad probatoria por parte de la Administración municipal, cuya ausencia sería, por sí solo, un argumento de suficiente peso en orden a la anulación de la resolución administrativa impugnada”.

Epai horren harira, gai jakin horren inguruan ondoriozta dezakegu funtsezkoa dela jarduera frogagarri esanguratsu bat emateko betekizuna, eta horrez gainera, froga horiek behar adina xehetasunez jasota egon behar dute hasitako espedientean, eskatzaileek bere argudio guztiak erabil ahal izan ditzaten eroldan alta ez emateko arrazoiaren aurka.

1.1.2. Gehiegizko okupazioa, zenbait kale, hirigintza-biziberritzea eta abar (alkatetzako arauak)

Ez dakigu zein diren arau horiek, ez baitzikigute eman ez ofiziozko espediente hau izapidetzeko, ez izapidetutako kexa espezifikoaren kasuetan ere. "Arauen" gai jakin horri buruz, 2013ko irailaren 6ko gure gomendioan jada hau adierazi genuen:

“Nolanahi ere, zerbitzuko funtzionario arduradunek betebeharrak konpli ditzaten beharrezkoa izango litzateke kasuan kasuko instruzioak izapidetu eta ematea, organo eskudunak behar bezala onartutakoak, eta gure ustez, ezin da onartu eragindakoei emandako informazioa ahozko agindu bat edo irizpide bat izatea (kontuan hartuta ebazpenik eta protokolorik eman ez zaigula, ulertu behar dugu elkarte kexagileak aipatzen dituen “alkatearen aginduek” izaera hori dutela), are gehiago agindu horiek arauaren egiaztatutako interpretazio batetik urruntzen badira”.

Horrenbestez, ikuspuntu formal batetik, ezin da onartu “artxibatzearen” arrazoiak, gure ustez, ahozkoak diren alkatearen arau batzuk izatea. Aurrekoa gorabehera, erroldatze-eskaera ezeztatze arrazoi horien eduki materialari dagokionez, berriz esan behar dugu udal jarduketa legearen mendean dagoela beti, eta ez dugula aurkitu jokatzeko modu hori babestuko duen legezko oinarri bakar bat ere.

Gehiegizko okupazioari dagokionez, honako idazki hau igorri da (300 zenbakiko espedienteak): *“Se le informa que, en determinadas viviendas de este municipio, no está permitido el empadronamiento tanto de Altas Residenciales procedentes de otras localidades, como de Cambios de Domicilio, de aquellas personas que no formen parte de la unidad convivencial”.*



Beste kasu batzuetan, gehiegizko okupazioa dagoela iritzi da, honako testu honen bidez (294 zenbakiko espediente): *“Le informamos que, a fecha de hoy en el domicilio reseñado, figuran empadronadas cuatro personas más, y que el ayuntamiento de Sestao, siguiendo las directrices en cuanto metros cuadrados necesarios por persona/vivienda, no es posible admitir a otra persona más en dicha vivienda, salvo que VD. demuestre que forma parte de la unidad familiar”.*

Halaber, argudiaketa bera erabiliz, errentamendu-kontratuak bi titular zituen kasu batean (297 zenbakiko espediente): pertsona horietako batek jada eskatu zuen erroldatzea bere familiarentzat, eta horren ondorioz, kontratuaren beste titularrari ez diote uzten haren familia (emaztea eta bi seme adingabe) erroldatzea, familietako bat gehiegizko okupazioagatik ezin dela onartu adieraziz.

Azkenik, aipatzen den beste arrazoi bat da udalerriko zenbait etxebizitza prozesu honetan daudela: *“Gestión de la Rehabilitación de las mismas, siendo XXX una de ellas. Por este motivo, todos los movimientos de alta de padrón y cambios de domicilio, correspondientes a estos edificios, no están permitidos mientras no se finalice la actuación urbanística en curso”.* Hurre-hurreko aurri-deklarazio bat izan ezean eta dagokion eraisketa-agindua eman denean izan ezik, antolamendutik kanpo deklaraturako eraikinetan ere ezin da ukatu erroldatzea kausa horrengatik.

Laburbilduz, eskatutako erroldatzearen izapidetzea ukatzeko arrazoi horiek, hots, familia-unitate bat baino gehiago egotea, biztanleko gutxieneko metro kopurua egoteko betekizuna eta udalerriko kale batzuen hirigintza-egoera, guztiz zehaztu gabeko kontzeptuak izateaz gain, ez datoz bat legezkotasunarekin, guk dakigula, ez baitago horiek bermatuko dituen arau bakar bat ere.

1.1.3. Atzerritarren identifikazio-zenbakia

4/2000 Lege Organikoaren, urtarrilaren 11koaren, Espainian atzerritarren eskubideei eta askatasunei buruzkoaren, 6.3. artikulua, 2/2009 Lege Organikoaren (2/2009 Lege Organikoa, abenduaren 11koa, 4/2000 Lege Organikoa erreformatzen duena) artikulua bakarrean emandako idazketan, hau adierazten du: *“los Ayuntamientos incorporarán al padrón a los extranjeros que tengan su domicilio habitual en el municipio y mantendrán actualizada la información relativa a los mismos”.* Hala, egiazko datu bat (ohiko etxebizitza) erabiltzen dela ikusten da, eta ez datu juridiko bat (legezko egoitza), erroldan izena emateko oinarri gisa.

7/1985 Legearen, apirilaren 2koaren, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren, 16.2.f) artikulua, 14/2003 Legearen, azaroaren 20koaren, 4/2000 Lege Organikoa erreformatzekoaren, 3.2. artikuluan emandako idazketaren arabera, atzerritarren inguruan hau zehazten du:

“Número de la tarjeta de residencia en vigor, expedida por las autoridades españolas o, en su defecto, número del documento acreditativo de la identidad o del pasaporte en vigor expedido por las autoridades del país de procedencia, tratándose de ciudadanos nacionales de Estados miembros de la Unión Europea, de



otros Estados parte en el Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo o de Estados a los que, en virtud de un convenio internacional, se extienda el régimen jurídico previsto para los ciudadanos de los Estados mencionados.

Número de identificación de extranjero que conste en documento, en vigor, expedido por las autoridades españolas o, en su defecto, por no ser titulares de éstos el número del pasaporte en vigor expedido por las autoridades del país de procedencia, tratándose de ciudadanos nacionales de Estados no comprendidos en el inciso anterior de este párrafo...”.

Erroldatze Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek 2007ko urriaren 30ean egindako bileran adierazi zuen herritar horien errolda-inskripzioan derrigorrezko datu gisa, **ahal bada**, atzerritarren identifikazio-zenbakiak agertu behar duela. Hala ere, Erroldatze Kontseilu horrek argitu zuen (2008ko ekainaren 27ko ohar argigarria), aipatu agindua ezartzen duten dokumentuen lehentasuna kontuan izanda, atzerritarren identifikazio-zenbakia ez badago, aurreikusita dagoela erroldan nortasuna egiaztatzeko agiriaren zenbakia edo jatorrizko herrialdeko agintariek jaulkitako indarreko pasaportearena erabiliz erroldatzeko aukera.

Zentzu berean zehazten da Estatuko Abokatutza Nagusiak 2010eko urtarrilaren 20an emandako txostenean, Viceko alkateak Barne Ministerioari atzerritarrak erroldatzeko irizpideen inguruan egindako kontsulta batekin lotutakoan. Zehazki, derrigorrezko bisa ez duen pasaporte baten baliozkotasunari dagokionez, txostenak hauxe ondorioztatu zuen: ohiko bizileku den udalerriko erroldan atzerritarrek izena ematea egokia da, nahiz eta legez espainiar lurraldean bizi ez diren atzerritarrak izan. Hala, ondorioztatu zuen, udal erroldan atzerritarren izena emateko eskaerak izapidetzeko ondoretarako, baliozkotzat eta nahikotzat jo behar dela pasaporte bat, derrigorrezko bisa izan ez arren.

1.1.4. Jabearen baimenik ez izatea

Sestaoko alkateak igorritako erantzunean, 2013ko irailaren 6ko gure gomendioa aintzat hartu dutela adierazi dute, eta ebazpen hau jakinarazi den egunetik, ez dutela eskatzen etxebizitzako jabea erroldaren ardura duen funtzionarioaren aurrean **bertaratzeko** betekizuna betetzea, azpierreantamenduan dauden pertsonen erroldatzea baimentzeko.

Erantzun honetan, ez da ezer adierazi etxebizitzako jabearen baimena behar izatearen betekizunari edo beste dokumentu batzuei buruz, hala nola erroldatzea eskatzen duen pertsonari errentamendu-kontratua edo etxebizitzaren jabetza-titulua eskatzea. Gai jakin horren inguruan, gomendio hartan adierazitakoa azpimarratu beharko genuke, etxebizitza baten errentatzailearen baimenak, besterik gabe, biztanleen udal erroldan alta izapidetzeko derrigorrezko betekizuna ezin izan duela, hain zuzen. Eta interesdunak dokumentu horiek ez dituela baina alta eskatzen duen etxebizitzan bizi dela adierazten badu, udal erakundeak egiaz bertan bizi dela egiaztatzeko ikerketak egiten jarraitu beharko du, eskura dituen baliabideak erabiliz.



Zentzu horretan, Estatistika Institutu Nazionalaren 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenak⁴ hau adierazten du: *“Por ello, este título puede ser una escritura de propiedad o un contrato de arrendamiento, pero también un contrato de suministro de un servicio de la vivienda (agua, gas, electricidad, teléfono, etc.), o, incluso, no existir en absoluto (caso de la ocupación sin título de una propiedad ajena, sea pública o privada). En este último supuesto, el gestor municipal debería comprobar por otros medios (informe de Policía local, inspección del propio servicio, etc.) que realmente el vecino habita en ese domicilio, y en caso afirmativo inscribirlo en el Padrón, con completa independencia de que el legítimo propietario ejercite sus derechos ante las autoridades o tribunales competentes, que nunca serán los gestores del Padrón”.*

1.2. Eskaera ebazteko jarraitutako prozedura

Sestaoko Udalari aipatu gomendioetan jada adierazitakoa errepikatuz, 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenaren, 53., 54. eta 55. artikuluei jarraiki, administrazio-egintzak ezarritako prozedurari lotuko zaizkio, arrazoitu egin beharko dira egitateen eta zuzenbide-oinarrien aipamen laburra eginez eta idatziz egingo dira.

Bestalde, Tokiko Erakundeen Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduak espedienteak eta haien izapidetzea zehazten ditu. Hala xedatzen du espediente bat dela administrazio ebazpenaren aurrekari eta oinarri diren agirien eta jardueren multzo ordenatua, baita hori betearazteko eginbideak ere (164.1 artikulua). Gainera, 172. artikulua ezartzen du administrazio-espedienteetan bulegoko arduradunak horiek izapidetzeaz arduratuko denari informazioa emango diola haren irizpideak oinarri dituen legezko eta arauzko xedapenak eta aurrekariak azalduz.

Laburbilduz, eroldan alta emateko ukatzen den eskaera oro nahitaez espediente batean izapidetu behar da eta bertan gutxienez bulegoko buruaren eta, hala badagokio, aholkularitza juridikoaren txostena jasoko dira. Txosten horiek haren irizpideak oinarri dituen legezko eta arauzko xedapenak eta aurrekariak barne hartuko dituzte. Arartekoaren ebazpenak edo eskuordetzeagatik eskumena duen organoak eskaera ukatzeko baliatutako zuzenbideko oinarriak ezinbestean azaldu beharko ditu, derrigor idatziz egin beharrekoa eta interesdunari modu egokian jakinarazi beharrekoa.

Testuinguru orokor horretan, aztertutako espedienteen izapidetzean hautemandako arazo nagusiak aztertuko ditugu.

⁴ Ebazpena, 1997ko uztailaren 21ekoa, idazkariorde andrearena. Horren bidez, xedatzen da Estatistikako Institutu Nazionaleko presidentearen eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 4ko Ebazpena, udalei udal-eroldaren eguneratzeari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkiena, argitaratzea (177. EBO, 1997/07/25ekoa).



1.2.1. Espedienteak artxibatzea alta emandako helbidean ez bizitzeagatik, jakinarazpenarekin eta hartu izanaren agiriarekin

Lehen adierazi dugu arazo batzuk hauteman direla alta eskatzen den helbidean ez bizitzearen frogaren espedienteen ziurtatzean, bai eta ezeztatzeko beste arrazoi batzuk ere.

Atal honetan, xehetasunez aipatuko ditugu jarraitutako izapideak. Espedienteen bloke handi bat dago, non hau adierazi den:

“Una vez comunicado al interesado, la paralización de su solicitud de alta en el padrón de habitantes de esta localidad y transcurrido más de un mes, a la espera de posibles alegaciones, procédase al archivo del expediente”.

Egiaz, espedienteen jasota dagoen jakinarazpenean adierazten da udaltzaingoak XX datan txostena eman zuela, eta txosten horretan aditzera ematen zuela inskribatutako etxebizitzan ez zela bizi alta-eskaeran aipatutako pertsona. Pertsona helbide horretan bizi ez denez, *“...ha sido paralizado la solicitud de ALTA, en el padrón de habitantes de esta localidad, hasta tanto se puede comprobar que realmente reside en el mismo, pues es obligación de este Ayuntamiento mantener su padrón acorde con la realidad, de conformidad con el art. 62 del Reglamento antes citado”.*

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 84. artikulua zehazten du prozedurak bideratu ondoren, eta ebazpen-proposamenak idatzi aurretik, interesdunei prozeduren berri emango zaiela, gehienez hamabost eguneko epean eta gutxienez hamar eguneko epean, egoki irizten dieten dokumentu eta egiaztapenak alegatzeko.

Zalantzarik gabe, aipatzen den jakinarazpen-idazkia esanahi bat baino gehiagokoa da erabat, eta ez du beharrezko informazioa ematen legez aurreikusitako **entzutearen izapideari** buruz, eta ez du adierazten zer epe dituen pertsona eskatzaileak xede horretarako eta zer froga aurkez ditzakeen Udalak egiaz helbide horretan bizi dela aintzat har dezan.

Oro har, idazki horiek interesdunak erroldatzea eskatzen duen helbidera bidaltzen dira, eta hori pertsona eskatzailea helbide horretan bizi ez dela iriztearekin kontraesanean dago. Kasu horietako gehienetan jasota dauden jaso izanaren agirietako batzuetan idazkia jaso dela adierazita geratu da, baina beste askotan idatziz jasota dago ez dela posta-bulegotik hartu eta/edo hartzailea ez dela ezaguna helbide horretan. Laburbilduz, kasu askotan, ez da jasota geratu jakinarazpen hori jaso denik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59.5. artikulua adierazten dituen jakinarazpenak egiteko erregelak kontuan izan gabe, hots, legeko abisuen ohelean eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean azken helbide ezaguna argitaratzea.



Bestalde, aipatu jakinarazpenak adierazi du alta-eskaera **“gelditu egin dela”**. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 92. artikulua hau zehazten du: prozedura interesdunak eskaturik hasten bada, eta interesdunari lepora dakioken arrazoiren batengatik gelditu, administrazioak adieraziko dio prozedura iraungi egingo dela hiru hilabete igaro ondoren. Hiru hilabeteok igaro eta interesdunak egin behar duena egin ez badu prozedura ostera izapidetzeko, administrazioak ordura arte egindakoa **artxibatuko du**, eta horren berri emango dio interesdunari. Hala ere, artikulua horrek berak adierazten du ezin izango dela prozedura iraungi interesdunak izapideak ez betetzeagatik, izapide horiek ebazpena emateko ezinbestekoak ez badira behintzat.

Aztertzen ari garen kasuan, dudarik gabe, interesdunak ez du derrigorrez jarduketaren bat egin behar prozedura izapidetzen jarraitzeko, baizik eta erroldatze-eskaerari kontra egiten dion ezespen-proposamen bat dago eta Udalak proposamen hori jakinarazteko betebeharra du, interesdunak egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal ditzan, eta aurreikusitako epea igaro ondoren, dagokion ebazpen arrazoituaren bidez bidezkoa dena ebatz dadin.

Zentzu horretan, ez gaude eskaera artxibatzearen kasu baten aurrean, baizik eta, hala badagokio, interesdunari legez eta derrigorrez jakinarazi behar zaion ezespen-ebazpen baten aurrean gaude.

1.2.2. Espedienteak artxibatzea interesdunari jakinarazpen bakar bat ere egin gabe

Aztertutako espedienteen artean badago beste bloke handi bat, non hau adierazten den: interesdunari biztanleen erroldan alta emateko eskaera geldiarazi dela jakinarazten zaio, baina ez dago jasota aurreko atalean aipatutako jakinarazpena bidali denik eta jaso izanaren agiririk hartu denik. Kasu horietan ere espedienteetan ez dago jasota interesdunari ezezkua emateko proposamena pertsonalki jakinarazi zaionik, esate baterako, interesdunaren beraren sinaduraren bidez.

1.2.3. Espedienteak artxibatzea interesdunak berariaz eskatu duelako

Espedienteetan ez dago jasota eskaeran atzera egin denik eta eskaerari uko egin zaionik. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 91. artikulua zehazten du atzera egitea nahiz ukoa edozein baliabideren bidez egin daitezkeela, baldin eta idatziz jasota geratzen badira.

2. Bigarrenik, Udalaren erantzuna aztertuko dugu **Sestaoko biziberritze-prozesuari buruzko gomendioen betetzearekin** lotuta.

Atal honetan, urte hauetan Sestaon egindako aurrerapenak aipatuko ditugu, bai eta egiteko dauden konpromisoak ere. Horrez gainera, zenbait iradokizun jakinaraziko ditugu.



Sestaok oso langabezia-tasa altua du, batez ere beheko eremuan, desindustrializazio-prozesuak izugarri kaltetu baitzuen eremu hori. Euskal Autonomia Erkidegoan langabezia-tasa altuena duen udalerrria da, %25 ingurukoa.

3,5 Km²-ko azalera du, eta horietatik 0,9 Km²-k soilik dute bizitegi-erabilera. Gainerakoek industria-erabilera dute.

2.1. Sestaoko biziberritze-prozesuaren ondoriozko aurrerapen batzuk

Prozesu hori 2002. urtean hasi zen, Sestaoko udalerrian premiazko jarduketa egiteko beharrari buruzko 2002ko azaroaren 8ko Legez Besteko Proposamen baten bidez. Proposamen horretan, Sestaok bere beharrei aurre egiteko baliabiderik ez duela aitortzen da, eta horrenbestez, erakundeen arteko lankidetzara oso beharrezkoa dela. 2004. urtean, "Sestaon ekintzak uztartuz" Gida Plana onartu zen.

2.1.1. Hirigintzako hobekuntzak

Bidalitako informazioa aztertu ondoren, urte hauetan udalerriko hirigintza-biziberritzean aurrera egin dela balioetsi da. Besteak beste, eraikinak birgaitu dira, eraikin berriak eraiki dira, bideak hobetu dira, hala nola BI-3739 Sestao hiri-errepidea (Txabarri kalea), oinarri teknologikoko haztegi bat ezarri da Iberiako Merkatu zaharrean eta auzo-etxe bat eraiki da, Portopineko parkea urbanizatu da eta Sestao itsasora ireki ahal izan da. La Puntaren urbanizazioa gauzatu da eta etxebizitzaren eraikuntza esleitu da. 2018. urterako bukatuta egongo direla aurreikusten da.

2010eko irailean, Legez Besteko Proposamen bat hitzartu zen, Eusko Jaurlaritzari Gizarte eta Hirigintza Biziberritze Planean jasotako jarduketak abian jartzeko eskatuz eta 2011ko aurrekontuan hainbat urtetarako esleipen bat sartzeko eskatuz, eraikinak birgaitzeko ekintzak ordaindu ahal izateko, 2014. urtera arte, urte hori barne, konpromiso-kredituak ezarriz.

Udalak jakinarazi du barne-eraberritzeko plan bereziko (UE I Txabarri-EI Sol egikaritze-unitatea) jarduketetako bat egikaritzen ari dela, bai eta barne-eraberritzeko plan bereziaren antolamenduaren baitan eraikinen birgaitzea sustatzeko neurriak ere. Gaur egun, Txabarri-EI Sol birgaitze integratuko areako 25 eraikinetatik 7 berri dira, Legez Besteko Proposamen horri jarraiki. Sestao energia-eraginkortasunarekin, jasangarritasunarekin eta energia berriztagarriekin lotutako Europako hainbat proiektutan sartuta dago: EU GUGLED proiektua, nazioarteko PAPIRUS proiektua, IEE.

2.1.2. Etxebizitza baldintza egokietan eskuratzea eta izatea

Gida Planaren esku-hartzearen xede den etxebizitza-parkea eraikin zaharrez osatuta dago. Eraikin horietako gehienek zurezko egiturak dituzte eta gaizki kontserbatuta daude. 80 eta 100 urte artean dituzte gutxi gorabehera. Eraikinak bereziki



hondatuta dagoen eremu batean daude. Ez dira oso irigarriak eta energia-eraginkortasun gutxi dute.

Udalak erantzun du berriz ostatua emateko 150 espediente baino gehiago gauzatu direla. Gida Planak aurreikusita zuen 417 familiari etxea utzaraztea eta 481 etxebizitzatan esku-hartzea. Halaber, udalerritik 125 familia irtetea ere aurreikusten zuen. Sestao Berrik bere web-orrian⁵ adierazi du berriz ostatua emateko eskubidea 390 etxebizitzatara eta 188 familiarara iristen dela, eta horien %40ri (75 familia) Sestaotik kanpo eman zaiela berriz ostatua, etxebizitzaren esparruan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak eskura jarritako etxebizitzetan. Gainerako 113 familiei Sestaoko Udalak eskura jarritako etxebizitzetan eman zaie berriz ostatua.

Gehienbat Los Bañoseko jarduketa-eremuan dauden alokairuko etxebizitzaren udal parkearen kudeaketa hobetu da, eta komunitateko eremuen eta etxebizitzaren kontserbazioa ona izatea lortu da. Sestao Berrik du errentamendu-kontratuak betetzen direla zaintzearen ardura.

Halaber, alokairura bideratutako bitartekaritza-programa bat ere abian jarri da.

2.1.3. Erkidegoko jarduketak eta gizarte-sentsibilizazioko jarduketak

2010etik 2013ra jarduketa batzuk egin ziren, Habitat proiektuaren bidez (kultura arteko topaketak, materiala egitea, hala nola gida eta bideoa). Jarduketa horiek ez dute jarraipenik izan.

2.1.4. Parte-hartzea

2014. urtean, Sestaon herritarren parte-hartzearen erregelamendu bat onartu da, eta duela gutxi, Sestao Aurrera auzo-elkarteak topaketa bat antolatu du. Topaketa horretan, zenbait eragile publikok eta pribatuk Sestaoren egoerari buruzko diagnostikoa azaldu diete elkarri.

2.2. Egiteko dauden konpromisoak

2.2.1. Konpromiso hauen artean, funtsezkoa da Vega Galindoko, Ballonti Ardatzeko eremuko hirigintza-kudeaketa osatzea, behin betiko ostatua ematen hastea familiei eta etxebizitzaren arazoari irtenbide bat aurkitzea.

Vega Galindoko urbanizazio-obra egiteari esker, 2015eko urtarrilean La Puntan aurreikusita dauden eraikuntza-obra egiten hasi ahal izango da. Etxebizitza horiek beharrezkoak dira, behin-behinean berriz ostatua eman zitzaientzen zenbait familiaren itzulera kudeatu ahal izateko. Halaber, zenbait eraikinen hirigintza-desjabetzea ere egiteko dago, Rivas, Marismas de Galindo eta Vega Nueva kaleetan.

⁵ <http://www.sestaoberri2010.com/QueHacemosRealojos.htm>



Txabarri-El Sol birgaitze integratuko areari dagokionez, zenbait jarduketa egiteko daude. 18 eraikin antolamendutik kanpo daude, eta beste batzuek birgaitzea behar dute.

Horrez gainera, Sestaoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2014ko azaroan sinatutako Hitzarmenean aurreikusita zegoen Ballonti Ardatza Kueto-Karmen zatia egikaritzea, eta azpimarratu behar da egikaritze horretan aurrera egin behar dela, oraindik egiteko dago eta.

Egiteko dagoen beste konpromiso bat da Urbinagako intermodala egitea. Konpromiso horrek beste erakunde eta organismo asko inplikatzeko ditu (Administrazio zentrala, Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Adif...).

Arartekoaren 2006ko azaroaren 6ko ebazpeneko gomendioak azpimarratu nahi ditugu, behin betiko ostatu emateak Sestaon bertan egin behar direla aipatzen dutenak. Halaber, nabarmendu nahi dugu garrantzitsua dela udalerrian etxebizitzak eskuragarri jartzea, hirigintza-jarduketek edo aurri-espedituek kaltetutako familiei berriz ostatua emateko.

Arartekoaren 2006ko azaroaren 6ko Ebazpeneko 3. eta 4. gomendioei helduko diegu, eta batez ere, kaltetutako pertsona guztien etxebizitza-arazoa konpontzeko duen garrantziari eta Gida Planeko gizarte- eta hirigintza-eremuan aurreikusitako betekizunen eta proiektuen berrikusketari.

2.2.2. Gida Planean gizarte eta erkidego mailan esku hartzeko osagai bat eta tokiko garapenerako eta enplegurako osagai bat zuten aurreikusitako jarduketa guztiak ez dira egin.

Gida Planak biziberritzea zuen helburu, eta biziberritze hori hainbat jarduketaz osatuta dagoen ekintza integratu baten gisa hartzen zuen, hiri-arazoak konpontzea eta eraldatuko zen eremuko gizarte-, ekonomia- eta lan-baldintzak hobetzea xede zuena. Ez dakigu Plan horrek bere baitan hartzen zituen jarduketak ebaluaziorik egin den, proposatutako neurriak zenbateraino bete diren jakitea ahalbideratuko duena.

Udalak erakunde honi igorritako erantzunean, Europar Batasuneko egiturazko funtsen baitan uztartutako lurralde-inbertsioko proposamen bat egitea aurreikusita dagoela esaten da, hiri-biziberritzeko politika integratu bat garatu ahal izateko, gizarte-, enplegu- eta hirigintza-politikak elkartzea ahalbideratuko duena. Erakunde honek oso balorazio positiboa ematen dio ekimen horri, nahiz eta ez den zehaztu nola izapidetu eta egikarituko den.

2.2.3. Eusko Jaurlaritzak Sestao Berri Sozietatea babestu du hainbat urtetarako konpromisoen bidez, azken urteetan aurrekontua murriztu egin den arren. Sozietate horrek egindako lanak hirigintza-osagai handia izan du, bai eta gizarte-akopainamendukoa ere, parte hartzen zuen ostatu emateetan. Hirigintza gizarte-eraldaketako tresnatzat hartzen dute bai hirigintza-doktrinak bai hiri-soziologiaren



ikuspuntuak. Gero eta garrantzitsuagoa da hirigintzako erabakietan gizarte- eta erkidego-elementua aintzat hartzea.

2.2.4. Egiteko dauden kontuen artean dago erkidegoko esku-hartzean inbertsioak egitea, gizarte-harremanak hobetu ahal izateko. Gizarte-harremanak konplexuak dira, tartean baitaude gizarte- eta kultura-faktoreak, bai eta enplegua (gazteen artean nahiz iraupen luzeko langabeen artean) eta baliabide pertsonalak eta ekonomikoak ez izatea ere. Horretarako beharrezkoak dira gizarte- eta erkidego-inbertsiora bideratutako neurriak hartzea, eta batez ere, erakundeei eta elkarteei laguntzeko neurriak hartzea. Parte-hartze erregelamendu berriak eta Udalak 7. eta 8. gomendioetara eskualdatu dituen proposamenek lan-itxaropen berriak planteatzen dituzte udalerriko gizarte-eragileekin. Beraz, aurreikusita dago gizarte-erakunde guztiak aintzat izatea, bazterketarik gabe. Ikuspuntu horretatik, beharrezkoa da Sestaon sestaoarren arazoak artatzen lan egiten duten erakundeen eta elkarten gizarte-partaidetza eratzea, prozedura egonkor eta iraunkor baten bidez.

2.3. Sestaon biziberritze-prozesuari buruz egindako azterketaren ondoren, honako iradokizun hauek helarazten dizkizugu, Sestaoren egungo egoeran interesgarriak izan daitezkeela irizten baitugu.

2.3.1. Arartekoaren iritziz, **Gida Planaren lanak berriz hartu** behar dira, bizi-baldintzak hobetzeko helburu orokorraz, Sestaon bizi den biztanleria mantentzea eta eremuko gizarte- eta ekonomia-suspertzea bideratuz.

Presazkoa da Sestaorekin erakundeen arteko konpromisoari berriz heltzea, birgaitzeko jarduketa integratuak egiteaz gain, espazio libreak sortzeko eta gizarteratzea mesedetuko duten eta eremuko beharrei erantzuten dieten ekipamenduak sortzeko, hondatutako hiri-eremuak berriz urbanizatzeko, eta gizarte-hezkuntzako programak eta familiako eta kulturarteko bitartekaritza-programak abian jartzeko. Programa horietan, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa, parte-hartzea eta biztanleria mantentzea bideratuko duten jarduketa eta proiektu guztiak sartzen dira, kolektiborik ahulenei arreta berezia jarritz.

Programa horiek **jarraipen bat** izan behar dute, emaitzak lortu ahal izateko.

Hirirako⁶ eta hiri-habitat edo -ingurumen baterako eskubidean aurrera egitean datza, hirigintza- eta lurralde-garapen jasangarri, ekonomiko, ingurumeneko eta sozial baten baitan, non berdintasunak eta gizarte-kohesioak lehentasuna duten, sakabanatze-prozesuak saihesteko.

⁶ Hirian Giza Eskubideak babesteko Europako gutuna, 1.1. artikulua. Hiria biztanle guztien jabetzako espazio kolektibo bat da, eta biztanle guztiak dute bertan beren politika-, gizarte- eta ekologia-errealizaziorako baldintzak aurkitzeko eskubidea, elkartasunezko zereginak beren gain hartuz. 2. Udal agintariak denen duintasuna eta biztanleen bizi-kalitatea errespetatzea sustatzen dute, eskura dituzten baliabide guztien bidez.



Jarduketa horiek eragin positiboa izango dute segurtasunean eta herritarren bizikidetzan.

Laburbilduz, gizarte- eta erkidego-estrategia berriz bat behar da, **Gida Planaren adierazpen berri bat**. 2004. urtetik, Sestaoren errealitatea aldatu egin da. Horrenbestez, xede hauek dituzten lanak berriz egiten hasi beharko lirateke: (1) errealitatea ezagutzea (bilerak auzokoen erkidegoekin, auzo-elkarteekin eta gizarterakundeekin, gizarte-zerbitzuekin, datu-bilketak egitea...), (2) diagnostiko bat egitea (errealitatearen interpretazio teknikoa), eta (3) jarduketa-estrategiak, programak eta proiektuak proposatzea, egoki lotuta daudenak eta aurrekontua zuzen egin zaienak, eta egikaritzen diren bitartean nahiz amaitzean ebaluatuko direnak.

Biziberritzeko lanak hirigintzako eta gizarte-hezkuntzako alderdiak hartu behar ditu bere baitan, eta kaltetutako biztanleriaren parte-hartzea aurreikusi behar du.

Behar adina etxebizitza eskuragarri izatea lortzean, gizarte-nahasketa eta kulturartekotasuna eta herritarren bizikidetzaren bideratzean datza, hiri-sakabanaketaren eta gizarte-hausketaren arriskuak prebenituz, Nazio Batuen Habitat⁷ programako eta Europako Hiri Jasangarriari buruzko Leipziger Gutuneko⁸ helburuekin bat etorrituz.

Esku-hartzeek berdintasunaren printzipioa eta gizarte-eskubideak errespetatu behar dituzte, eta lankidetzaren kultura bat egon behar du, denon intereseko xedeak lortzeko, gerta daitezkeen liskarrak eta gatazkak gaintuz.

Horretarako tresna bat izan daiteke Habitataren Pedagogiako programa bat, gizalteraldaketa helburu duena, besteak beste. Programa horiek beren baitan hartzen dituzte eragile pribatuen eta publikoen inplikazio aktiboa hiriaren, hiriko eremu publikoen eta hiri-eszenografiaren eraldaketarako eta duintzerako diseinu partekatuan, hau da, hiri-eraldaketa gizarte-eraldaketarekin lotzen dute ikuspuntu parte-hartzaile batetik.

Helburu orokor gisa planteatzen du herritarrak sentsibilizatzea, etxebizitza eta eremu publikoak erabiltzen eta zaintzen jarrera arduratsua izan dezaten, hausnarketarako eta ekintzarako, gizarte-partaidetzarako eta kulturarteko bizikidetzaren balioa sustatzeko topalekuak ahalbideratuz proiektua osatzen duten jarduketa multzoaren zeharkako ardatz gisa.

⁷<http://habitat.aq.upm.es/aghab/aproghab.html#II>

⁸ 2007ko maiatzaren 24an eta 25ean Leipzigen egindako Hiri Garapenari eta Lurralde Kohesioari buruzko Ministroen Topaketa Informalean, Europako Hiri Jasangarriari buruzko Leipziger Gutuna eta 2007ko Europako Lurralde Agenda onartu ziren. Leipziger Gutunak bi gomendio-ardatz nagusi ditu: hiri-garapenaren politika integratuei buruzkoak eta auzo pobreenen artatzeari buruzkoak.



2.3.2 Ezinbestekoa da Tokiko Enplegu Planaren garrantzia eta industria-hondakinak daudela azpimarratzea. Testuinguru horretan, gogoeta batzuk egin daitezke udalerriko industria-lurzoruaren eremu zabalei buruz. Eremu horietan, hondakin ugari daude eta salbuespenezko egoera ugari sortzen ari dira (hala, Babcock Power S.A.ren industria-nabeen kasua aipa dezakegu, 2290/2014 espedientearen bidez Arartekoak esku hartzea eragin duena). Udalerraren industria-iragana dela eta, enplegua sor dezaketen beharrezko jarduera ugari sortzen ari dira, besteak beste, industria-egiturak eta -elementuak desagitea, hondakinak aztertzea, txatarra bihurtzea eta metalak berreskuratzea, biltzea, garraiatzea eta biltegitratzea, eta zenbait hondakin mota zuzen sailkatzea, tratatzeko: berreskuratzea, birziklapena, balioztatzea eta hondakin arriskutsuak kudeatzea edo kentzea, bai eta deskontaminazio generikoa eta lurzoruen deskontaminazioa.

Aurreko ardura horiek betetzeko, zenbait jarduera egingo dituzten langileak behar dira. Alde batetik, zaintza-funtzioak, sartzeko baimenik ez duten edo desagite-lanak egiteko baimenik ez duten pertsonak sar ez daitezken. Bestalde, pabilioiak eraisteko, kultura-ondarea kontserbatzeko eta hondakinak modu egokian eta indarreko legiari jarraiki kudeatzeko funtzioak egiteko langileak ere beharko dira.

Erakunde honek udalerrri horietan bizi diren eta lan-merkatuan sartzeko desabantailan dauden (adinagatik, iraupen luzeko langabea izateagatik edo gutxiengo etniko batekoa izateagatik lan-merkatuan baztertua izateagatik) pertsona langabeentzako enplegu-programak abian jartzea proposatzen du.

Enplegu Programa 2014. urterako Lanbideren lankidetzarekin Sestaoko Tokiko Enpleguko Planean hitzartutakoaren antzekoa izan daiteke. Plan horren bidez, eremu publikoen eta lorategien 12 zaintzaile kontratatu ziren, eta gaur egun, Sestaoko kaleetan lanean ari dira. Lantokia erabiltzen ez diren eta kanpoko pertsonentzat arriskutsuak izan daitezkeen industria-instalazioetan koka daiteke. Funtzio hauek garatu beharko liriateke: une hauetan gertatzen ari den pabilioien kontrolik gabeko suntsitzea saihestea.

Beste proposamen bat da laneratze-enpresa bat sustatzea (Eusko Jaurlaritzaren 182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa), eraisketaren eta industria-hondakinak kudeaketa osoaren, amiantoa kentzearen eta abarren sektorerantz zuzendutakoa, bai eta gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea zuzendutakoa ere.

Halaber, kontratazio publikoan 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, azaroaren 14koaren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenaren, 118. artikuluan aurreikusitako gizarte-klausulak ere aintzat hartzea proposatzen da. Hau da, espediente honetan aipatzen ari garen edozein jarduketari buruzko kontratu bat esleitzean, balorazio-irizpide gisa ezarri beharko da langileen ehuneko bat enplegua eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonak osatzea, edo kontratua egikaritzeko baldintza berezi gisa adierazi beharko da gizarte-bazterketako egoeran dauden edo gizarte-bazterketako egoeran egoteko arriskuan



dauden pertsona kopuru jakin bat kontratatu behar izatea ezinbestean edo, bestela, laneratze-enpresa bat izatea.

Azkenik, lagungarria gerta daiteke industria-hondakinak kudeatzen, amiantoa kentzen eta abar egiten prestatzeko lan-prestakuntza eskaintzea, adinagatik, iraupen luzeko langabea izateagatik edo gutxiengo etniko batekoa izateagatik lan-merkatuan bazterketa pairatzeagatik lan-merkatura sartzeko desabantailan dauden pertsona langabeentzat.

Arartekoaren iritziz, ekonomia- eta enplegu-jarduera sortzeko aukera baten aurrean gaude, 2290/2014 espedientean adierazi dugun bezala.

2.3.3. Beharrezkoa da **administrazioak udalerriko gizarte-eraldaketan inplikatzeari**.

Horretarako, funtsezkoa da herri-administrazioek parte hartzea: Sestaoko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza, hiri-gobernantza integratuko, erakunde-leialtasuneko, lankidetzako, kolaborazioko eta koordinazioko printzipioen arabera.

Hiri-gobernantza integratuko printzipioari esker, hainbat zailtasuni aurre egin dakieke, hala nola gizartekoei, etxebizitzako eta hirigintza-ingurunekoei, tokiko ekonomia-hazkundearen eta enpleguaren aldeko apustua aintzat hartuz. Printzipio horrek politiken ardura duten sektoreen (zenbait sail edo negoziatu) arteko integrazio horizontalari nahiz gobernu arteko integrazio bertikalari (zenbait gobernu-mailaren artean, udala, foru-aldundia, Eusko Jaurlaritza) buruzko aipamena egiten du, bai eta gizarte zibilaren parte-hartzeari buruz ere, hala nola hezkuntza-eragileen, hirugarren sektoreko eragileen eta enpresa-eragile pribatuen parte-hartzeari, tokiko arazoei baterako erantzunak eman ahal izateko.

2.3.4. Garatuko diren jarduketak Ezkerralde osorako estrategia komun batean kokatu behar dira.

Sestaok, Barakaldo, Portugalete eta Santurtzirekin batera, Nerbioiren Ezkerraldea osatzen du, eta guztira 223.838 biztanle bizi dira udalerririk horietan. Sestaon sustatuko diren jarduketek jarraitutasuna izan behar lukete beste udalerriekin, industria-garapeneko historia bera izan duten aldetik. Ezkerraldea Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren elementu eragilea izan da, eta herri-administrazioek berriz erreparatu behar lukete. Komunikabideei dagokienez, leku estrategiko batean kokatuta dago, eta **sustatu beharreko** ekonomia-ahala du.

3. Azkenik, **herritarren segurtasunari** buruzko gogoetak aipatu ditugu, hasierako informazio-eskaeraren hirugarren blokeari dagozkionak.

Euskal herri-administrazioek Arartekoari lehentasuna eman eta presaz eskatzen zaizkien datu, dokumentu, txosten edo azalpen guztiak emateko legezko zeregina dute, Arartekoak bere funtzioak bete ditzen. Eskatutako informazioa eskuratzea



zailtzen duen edozein jarduketa legez oztopatze gisa kalifikatzen da (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 24. artikulua).

Gure ustez, Sestaoko Udalak kasu honetan ez du behar bezala bete aipatutako legezko betebeharrak. Izan ere, ez die erantzun herritarren segurtasunarekin lotuta jakin nahi izan ditugun kontu gehienei, aurrekarietan adierazi dugun bezala, eta ez du arrazoitu erantzuteko ezintasuna.

Informaziorik ez dugunez, berriz ere esan behar dugu immigrazioa delinkuentziarekin, herritarren segurtasun gabeziarekin eta bizikidetzaren hondatzearekin lotzen duten diskurtso politikoen aurka gaudela.

Berriz ere azpimarratu behar dugu orokortze horiek atzerritar jatorriko biztanleriaren irudia kaltetzen dutela, aurreiritziak edo immigrazioari buruzko estereotipoak sortzen edo, hala badagokio, indartzen laguntzen dutela, eta horrek biztanleria horren gizarteratzea eta gizarte-bizikidetzak kaltetzen duela. Horrez gainera, zenbait kolektibitateak kideak susmopean jartzen ditu, kolektibitate horretako kide izateagatik soilik.

Era berean, derrigorrez aipatu behar dugu beharrezkoa dela Udalak Arartekoaren urriaren 27ko 7/2011 Gomendio Orokorren, "Poliziaren jardura eta praktiketako berme sistemari buruzkoaren", VI. atalean aipatutako prebentzio-mekanismoak ezartzea, atzerritar jatorriko pertsonekin jarduketa diskriminatzaileak saihesteko. Izan ere, Udalak eman digun informaziotik ondorioztatu dugu ez dituela hartu proposatu genizkion neurriak, Udaltzaingoak pertsona horiei buruzko jarduketak berrikusten dituen izan ezik.

Gomendioan aipatzen genituen neurriak honela laburbil daitezke: a) Arraza-profilen eraketa ikertu eta poliziaren jarduerak gainbegiratu mota horretako praktikak identifikatzeko aldera. Kasu garrantzitsuetan, jatorri nazionala edo etnikoa, hizkuntza, erlijioa eta nazionalitatea bezalako faktoretan oinarritutako datuak bilduz; b) honako hau azpimarratu: poliziaren kontrol, zainketa edo ikerketa jarduerak soilik jarri daitezke abian irizpide objektiboak oinarri hartuta; c) polizia-jarduketak arrazoitzea; d) arrazismoa eta arrazagatiko bereizkeria ez pairatzeko eskubideari buruzko prestakuntza ematea eta arraza-profilak egiten irakastea agenteei; e) delitu arrazistak eta gorabehera arrazistak sakonki ikertzea, delitu arruntetan arrazoi arrazistak aintzat hartzea, eta batak eta besteak erregistratzeko eta gainbegiratzeko sistemak ezartzea; f) delituzko egitate baten ustezko arduradunen arraza-jatorriari edo nazionalitateari buruzko datuak ez zabaltzea, hedatzen den informazioa ulertzeko zorrozkari beharrezkoak direnean eta bidezko xede bati erantzuten diotenean izan ezik; eta g) hedatzen den informazioa objektiboak izatea, eta berdintasunaren alde dagoen askotariko gizarte errespetatzen duena.

Informaziorik ez dugunez, berriz esan behar dugu beharrezkoa dela udalerrian sor daitezkeen herritarren segurtasuneko arazoei erantzun planifikatu eta koordinatu bat ematea.





Horren ondorioz, sortu diren uziei jarraipena egiteari utzi gabe, bukatutzat jotzen dugu gure jarduketara, hauek emanez:

Ondorioak

1. Udal erroldan izena emateari buruz

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, udal errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa dela zehazten du (16.1. artikulua).

Beraz, Udalaren ardura den administrazio-erregistro bat da eta egiaz udalerrian bizi diren pertsona guztiak inskribatzea du helburu. Hala, Udalek gai horretan esku hartzeko dituzten mekanismoen xede bakarra erregistro horrek udalerrri jakin batean egiaz bizi diren auzotarren zerrenda jasotzea izango da. Zentzu horretan, ikuskatzeak egiten direnean, pertsonak erroldatzea eskatzen duten etxebizitzetan egiaz bizi direla egiaztatzeko izan behar dute, eta espedientean ikuskatzearen proba guztiek idatziz jasota geratu beharko dute, eta proba horiek behar bezain erabakigarriak izan beharko dute erroldatzearen ukatzea oinarritzeko.

Ezekkoa eman zaion erroldan alta emateko eskaera orok, derrigorrez, txosten juridikoak eta ezespren-proposamena arrazoitzen duten proba guztiak jasotzen dituen dagokion espedientea izapidetzea eskatzen du, eta hori guztia espedientean behar bezala ziurtatuz, baita entzute-izapidea ere. Arartekoaren ebazpenak edo eskuordetzeagatik eskumena duen organoak eskaera ukatzeko baliatutako zuzenbideko oinarriak ezinbestean azaldu beharko ditu, derrigor idatziz egin beharrekoa eta interesdunari modu egokian jakinarazi beharrekoa.

2. Sestaoko biziberritze-prozesuari buruz

Sestaoko biziberritze-prozesua oraindik ez da amaitu, eta horrenbestez, Arartekoaren 2006ko azaroaren 6ko ebazpenak jasotzen zituen gomendioak oraindik indarrean daude.

Sestaok dituen beharrek hainbat esparruri eragiten diete. Hirigintzako eta etxebizitza eskuratzeko esparruez gain, biztanleriaren ehuneko handi bat gizarte-desabantailan dago (hainbat arrazoi direla eta, besteak beste, iraupen luzeko langabeak izatea edo enplegua eskuratzeko zailtasunak dituzten gutxiengo etnikokoak izatea), eta horrek gizarte-politika inklusiboak eskatzen ditu.

Azken urteetan, Sestaon hirigintza-hobekuntzak egin dira, eraikinak eta errepideak berritu dira, eta lursailak urbanizatu. Hala ere, egindako jarduketak ez dira nahikoak Sestaoko gizarte-, hirigintza- eta ekonomia-egoerari aurre egiteko.



Beharrezkoa da erakunde arteko hitzarmenari berriz ekitea, dagokien zuzkidura ekonomikoa duten politika publikoak proposatzeko, Sestaoko gizarte- eta ekonomia-erlaketan eragina izan dezaten, eta Nerbioiren Ezkerraldeko gizarte-, lan- eta ekonomia-garapenean inplikaturako eragile publiko eta pribatu guztiek parte hartzeko.

3. Herritarren segurtasunari dagokionez

Sestaoko Udalak ez du behar bezala bete Arartekoarekin lankidetzan jarduteko legezko zeregina herritarren segurtasunaren inguruan egin genizkion galderei dagokionez, ez baitie erantzun galdera gehienei, eta ez baitu justifikatu haiei erantzuteko ezintasuna (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 24. artikulua).

Eman digun informaziotik ondorioztatu dugu Udala ez dela hornitu Arartekoaren urriaren 27ko 7/2011 Gomendio Orokorraren, " Poliziaren jardura eta praktiketako berme sistemari buruzkoa"ren, VI. atalean aipaturako prebentzio-mekanismoez, atzeritar jatorriko pertsonekin jarduketa diskriminatzaileak saihesteko, Udaltzaingoak pertsona horiei buruzko jarduketak berrikusten hasi izanaren salbuespenarekin. Eta hori dela eta, berriz ere atal horretan gomendaturakoa errepikatu behar diogu.

Halaber, azpimarratu behar dugu immigrazioa delinkuentziarekin, herritarren segurtasun-gabeziarekin eta bizikidetzaren hondatzearekin lotzen duten diskurtso politikoaren aurka gaudela, eta beharrezkoa dela udalerrian sor daitezkeen herritarren segurtasuneko arazoei erantzun planifikatu bat eta koordinatu bat ematea, Udalak ez baitigu eman gai horiei buruzko informaziorik.